

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari

2022ko azaroaren 14tik (130 zk.ko ALHAO) aurrera arauz jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzari 11 epigrafea, azterketa eskubideen tasa, gehitzeko espediente. Hona hemen hitzez hitz:

ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarenekin bat etorriz, udal honek zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita jarduera horiek jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga egitatea, zerbitzu hori partikularrek zuzenean eskatu dutelako, edo partikular horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4 artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badizkiete, horiengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiak, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainaraziko dizkiete.

Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.

Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokena.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik eratorritako zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

1. Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

IX. TASAK KUDEATZEA

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Eranskina

1. Epigrafea) Kiroldegia.

Zerga egitatea: udal kiroldegiko instalazioak erabiltzea; horrek zerga ordaindu beharra eragingo du.

“Arrazpi Berri” erabilera anitzeko kiroldegiaren instalazioak erabiltzeagatiko tarifak:

ZERBITZUA	TARIFA (EUROTAN)
Kantxa argi eta guzti (taldeko tarifa 1,30 ordu). Pilota	25,00
Kantxa argirik gabe (taldeko tarifa 1,30 ordu). Pilota	20,00
Kantxa argi eta guzti (taldeko tarifa 1,30 ordu)	35,00
Kantxa argirik gabe (taldeko tarifa 1,30 ordu)	30,00
Aretoak (banakako tarifa 1 ordu, dutxa eta guzti)	3,00
Aretoak (banakako tarifa ½ ordu gehiago, dutxa eta guzti)	1,50
Aretoak (banakako tarifa hileko bonua, dutxa eta guzti)	20,00
Dutxa	2,50
Boulder ohola erabiltzea (saio bat)	2,50
Boulder ohola erabiltzea (10 saioko bonua)	18,00

2. epigrafea) Udal igerilekuak.

Zerga egitatea: udal igerilekuetako instalazioak erabiltzea; horrek zerga ordaindu beharra eragingo du.

Udal igerilekuetako instalazioak erabiltzeagatiko tarifak:

ZERBITZUA	TARIFA
Eguneko sarrera, helduak (65 urtetik gorakoak barne)	5,00
Eguneko sarrera, haurrak (14 urtetik beherakoak)	3,00
Eguneko sarrera, 15 heldu baino gehiagoko taldeak (pertsoneko)	3,50
Eguneko sarrera, 15 haur baino gehiagoko taldeak (pertsoneko)	2,50
Igerilekurako abonamendua, helduak	37,00
Igerilekurako abonamendua, haurrak (14 urtetik beherakoak)	20,00

Aplikazio arauak:

1. Kirol instalazioetako txartela edo B motako kirol txartela dutenek ez dute aipatutako tarifa horiek ordaindu beharrik izango.

2. Hobariak:

Bizikidetza unitateei (kide bakoitzari) hobari hauek ezarriko zaizkie abonamenduak atera ahal izateko:

14 urtetik beherako seme-alaba bat eta urtean 32.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 10.

14 urtetik beherako bi seme-alaba eta urtean 40.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 15.

14 urtetik beherako hiru seme-alaba eta urtean 50.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 20.

Guraso bakarreko bizikidetza unitateen kasuan:

Urtean 16.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 10.

14 urtetik beherako bi seme-alaba eta urtean 20.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 15.

14 urtetik beherako hiru seme-alaba eta urtean 25.000,00 eurotik beherako errenta: ehuneko 20.

Hobari hori subjektu pasiboak aurrez eskatuta emango da, hala badagokio, igerilekuen abonamendua atera eta ordaindu ondoren. Errenta zehazteko, aurreko urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, ziurtagiria edo errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

3. Lau urtetik beherako haurrak doan sartuko dira, beti ere pertsona helduek lagunduta badoaz.

3. epigrafea) Kirol zerbitzuak.

Zerga egitatea: udalak antolatzen dituen kirol ikastaroetan parte hartzea.

Kirol instalazio eta ekipamenduen txartela edo A motako kirol txartela sortzen da, zerbitzu hauetarako: gimnasioan eta kiroldegiko aretoetan gehienez ere ordu eta erdiko saioak egiteko, eta kirol ikastaroetara joateagatik tarifa bereziak izateko. Horrez gainera, kiroldegiko kantxa era bili ahal izango da astean behin.

B motako kirol txartela (kirol instalazio eta ekipamenduen txartela) ere sortzen da; txartel horrekin, A motakoaren prestazioak izateaz gainera, udal igerilekuak ere erabil daitezke.

Kirol txartelak eskuratzeko eta kirol ikastaroetan parte hartzeko tarifak:

ZERBITZUA	TARIFA	
	KIROL TXARTELAREKIN	KIROL TXARTELIK GABE
Kirol instalazioen txartela edo A motako kirol txartela: kantxa (astean behin) eta aretoak erabiltzea	53,00	—
Kirol instalazioen txartela edo B motako kirol txartela: kantxaren (astean behin), aretoen eta igerilekuen erabilera	72,00	—
Kirol ikastaroetara joatea, astean ordubete edo gutxiago (hiruhilekoa)	16,00	25,00
Kirol ikastaroetara joatea, astean ordu eta erdi (hiruhilekoa)	23,00	35,00
Kirol ikastaroetara joatea, astean ordubete eta bi ordu artean (hiruhilekoa)	30,00	45,00
Kirol ikastaroetara joatea, astean hiru ordu (hiruhilekoa)	44,00	65,00

Aplikazio arauak:

1. Kirol instalazioetako txartelak edo kirol txartelak urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko balioa izango du, baina txartela aurreko urteko abenduan egingo da. Era berean, indarreko urtean eskuratu ahal izango da, ekitaldia bukatzeko geratzen den denborarako eta tarifetan murrizketarik izan gabe.

2. Hobariak:

Ehuneko 20ko hobaria ezarriko zaie 65 urtetik gorako adinekoentzako kirol ikastaroen tarifei, kolektibo horretan kirola egitea sustatzeko. Hobaria automatikoki aplikatuko da NANA edo identifikazio agiri baliokidea aurkeztu ondoren.

Ehuneko 15eko hobaria ezarriko zaie urtean 18.000,00 eurotik beherako errenta duten erabiltzaileei, kirol instalazioen txartelaren edo kirol txartelaren edozein modalitatetan.

Hobari hori subjektu pasiboak aurrez eskatuta emango da, hala badagokio, txartela atera eta ordaindu ondoren. Errenta zehazteko, aurreko urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, ziurtagiria edo errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

4. epigrafea) Musika irakaskuntza.

Zerga egitatea: asparrena musika eskolako musika irakaskuntza ikastaroetan matrikula egitea, zeinak zerga ordaintzea dakarren.

Honako tarifa hauek aplikatuko dira:

KONTZEPTUA EDO DIZIPLINA	MATRIKULA	HILEKO KUOTA
Musika hizkuntza	89,30	17,33
Musika tresna	241,11	46,80
Instrumentu taldea	—	15,60

Aplikazio arauak:

Eskolan baja ematen duen ikasleak hileko kuota guztiak ordainduko ditu ikasturtea amaitu arte, salbu eta baja gaixotasunagatik edota dokumentuen bidez behar bezala justifikatzen diren arrazoi medikoengatik bada.

Eskolara ez etortzeak, arrazoia edozein dela ere, baita behar bezala justifikatutako arrazoiak ere, ez du inolako murrizketarik eragingo.

Hobariak:

1. Familia unitateko kide guztiak Asparrena udalerrian erroldatuta badaude, honako hobariak izango dituzte:

– Musika eskolan familia unitateko bi pertsona matrikulatzen badira, bigarren kidearen matrikula kuotan ehuneko 5eko beherapena egingo da.

– Musika eskolan familia unitateko hiru pertsona matrikulatzen badira, hirugarren kidearen matrikula kuotan ehuneko 10eko beherapena egingo da.

– Musika eskolan familia unitateko lau pertsona edo gehiago matrikulatzen badira, laugarren eta hortik aurrerako kideen matrikula kuotan ehuneko 15eko beherapena egingo da.

2. Halaber, Asparreneko Udalak ehuneko hobari bat jarriko die ezarritako tasetan musika eskolan ikasturtea hasi aurreko hiru hilabeteetan, gutxienez, Asparrena udalerrian erroldatuta egon direnei, baldin eta ikasturtean bertan erroldatuta jarraitzen badute. Hona hemen kolektibo horrentzako tasak:

KONTZEPTUA EDO DIZIPLINA	MATRIKULA			HILEKO KUOTA		
	TASA OROKORRA	HOBARIA	HOBARIDUN TASA	TASA	HOBARIA	HOBARIDUN TASA
Musika hizkuntza	89,30	44,77	44,53	17,33	8,40	8,93
Musika tresna	241,11	179,89	61,22	46,80	16,81	29,99
Instrumentu taldea	—	—	—	15,60	5,60	10,00

5. epigrafea) Txostenak eta hirigintza zedulak jaulkitzea.

Partikularrek eskatuta zerbitzu teknikoek egiten duten hirigintzako txosten edo zedula bakoitzeko: 10,95 euro.

6. epigrafea) Fotokopiak jaulkitzea eta dokumentuak konpultsatzea.

a) Fotokopiak.

Aplikatzeko araua:

Fotokopia zerbitzua udalean erregistratzen diren agirien kopiak lortzeko baino ez da eskainiko, sekula ez partikularren agiriatarako.

DIN-A4 orri bakoitzeko:

Alde batetik, 0,15 euro.

Bi aldetatik, 0,20 euro.

DIN-A3 bakoitzeko: 0,20 euro.

b) Konpultsatzea:

Kompultsaturiko orri bakoitzeko, 0,66 euro.

7. epigrafea) Informatika ikastaroak eta prestakuntza.

Informatika ikastaroak edo bestelako prestakuntza edo zabalkunde ikastaroak:

Bostetik hogeit hamar ordura arteko ikastaroen matrikula: 25,08 euro.

Hogei ordutik gorako ikastaroen matrikula: 47,94 euro.

Ikastaro ordu bakoitzeko: 2,26 euro.

16 urtetik beherakoak:

Bostetik hogeit hamar ordura arteko ikastaroen matrikula: 13,12 euro.

Hogei ordutik gorako ikastaroen matrikula: 25,08 euro.

Ikastaro ordu bakoitzeko: 1,17 euro.

8. epigrafea) Ludoteka zerbitzua edo jolaslekua.

Urtebeteko balioaldia duen txartel bakoitzeko: 10,29 euro.

Salbuespen bat ezartzen da ekonomia arazo larriak dituzten bizikidetzako unitateetako kide diren zerbitzuaren erabiltzaile guztientzat. Egoera hori, oinarrizko gizarte zerbitzuen txosten baten bitartez egiaztatatu beharko da.

Familia ugarien kasuan, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira urtebeteko txartela eskuratzeko duen hirugarren anai-arreba edo kidea eta horren ondorengoak.

9. epigrafea) Futbol zelaia.

Zerga egitatea: futbol zelaia erabiltzea; horrek zerga ordaindu beharra eragingo du.

Futbol zelaia erabiltzeagatik tarifa:

ZERBITZUA	TARIFA
Futbol zelaia (taldeko tarifa, 2 ordu, kanpoko argi eta guzti, dutxa barne)	120,00
Futbol zelaia (taldeko tarifa, 2 ordu, kanpoko argirik gabe, dutxa barne)	90,00
Futbol zelaiaren erdia (taldeko tarifa, 2 ordu, kanpoko argi eta guzti, dutxa barne)	65,00
Futbol zelaiaren erdia (taldeko tarifa, 2 ordu, kanpoko argirik gabe, dutxa barne)	50,00

10. epigrafea) Traktore zerbitzua, sasi-garbitzeko makina eta guzti.

Zerbitzua eskaintzen den ordu bakoitzeko: 67,45 euro.

11. epigrafea). Azterketa eskubideak.

Zerga egitatea: udalak lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez (librea edo mugatua) deitutako edozein hautaketa prozesutan izangai gisa parte hartzeko eskabideen erregistroa, funtzionarioen eta/edo lan kontratudun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko.

Hauek izango dira oposiziogile, lehiatzaile edo izangaiek ordaindu beharreko kuotak: 15 euro.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2023ko urtarrilaren 13a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ